

KIROLAK

Familia agurgarri horiek:

Eskutitz honen bidez, ikastetxeak ikasle guztiei egiten dien kirol eskaintzaren berri eman nahi dizuegu. Hauek dira aukeran ditugun kirolak: **futbola, saskibaloia, eskubaloia eta abiadurako patinajea**. Ondoren zehatzago agertzen dizuegu informazio garrantzizkoena:

Datorren urtetik aurrera, Ikastetxeko **ekipamendua** erosi beharko dute gure ikastetxeetako talderen batean dauden ikasleek. Hauek dira jantziak: txandala, izerditakoa, kirol arropak eta, futbolerako, galtzerdiak. Motxila ere badugu, baina aukerakoa da hori. Jantziak lehen lokalean eros daitezke, futboleko aldagelak dauden lekuan. Irailaren 13tik Urriaren 1era, astelehenetik ostiralera, jarriko dira salgai, 17:30etik 18:45era.

Urteko **kirolaren kuota** 135 eurokoa izango da eskola kiroleko taldeentzat, eta 170 eurokoa federatuentzat. Lehiaketa batek nahiz besteak berekin dakarrena da bi kuoten arteko aldea. Eskolakoa bi epetan ordaintzen da, eta federakoa behin bakarrik. Ikastaroan zehar baja eskatu nahi izanez gero, ikastetxeko Idazkaritzan jakinarazi beharko da.

Ordutegia, berriz, kategoriaren arabera aldatu egiten da eta kiroldegian dagoen karteldegian kontsulta daiteke (2009/2010 denboraldikoak dira eta aldaketak gerta daitezke datorren ikasturteari begira).

Datorren urterako kirolen batean izena emateko interesaturik daudenek honako izena emateko orri hau bete, eta IDAZKARITZARA eraman beharko dute APIRILAK 21 ASTEAZKENA BAINO LEHEN.

* Izen ematea egiten den adineko taldean plaza hutsik dagoen ikusi beharko da.

Har ezazue, bide batez, nire agurrik beroena.

Alain Ruiz
Kirol arduraduna

✂.....
2010/2011 KIROL DENBORALDIA izen emate berriak

Nire seme/alaba _____, aurten _____ denak,
_____ izena eta abizenak _____ ikasturtea eta maila
_____ jokatzea nahi dut, 2010/2011 ikasturtean.
_____ kirola

Ikastetxean lehendik kirolen bat praktikatzen badu, esan zein: _____

Gasteiz, 2010eko apirilak _____

Sinadura

HOJA DE INSCRIPCIÓN - DEPORTES - 10/11

MARIANISTAS

NOMBRE y APELLIDOS IZEN ABIZENAK

DIRECCIÓN HELBIDEA

C.POSTAL POSTA KODEA

FECHA DE NACIMIENTO JAIO EGUNA

LUGAR LEKUA

TELÉFONO TELEFONOA

DNI NAN

TELÉFONO MÓVIL SAKELAKO TELEFONOA

OBSERVACIONES OHARRAK

Hay que adjuntar:

- Autorización firmada (parte inferior de la carta)
- 4 fotos de carné (con nombre y apellidos por detrás)
- Fotocopia del Libro de Familia, DNI (preferible) ó Pasaporte